

# EUSKARAZ HITZ BERRIAK MAILEGUAN HARTZEKO PREMIA LEGOKEENEAN NOLA HAR LITEZKEEN BUKAERARI DAGOKIOLA

## II. HITZ BUKAERAK

Arau nagusitzat hurrengo hauek ematen dira:

1. Iturri zaharra latina delarik mailegu berriak hartzen direnean orainarteko hitzek izan duten ohizko bideari jarrai dakioko hitzaren bukaerari dagozkionetan, eta, euskal literaturaren tradiziozko usuarioa bikoitza denean, ahozko mintzairan ere beste horrenbeste gertatu izanik, ahal dela joera hedatuenera eutsiko zaio, literatura zaharrean izan duen pisua ere gogoan hartzen dela, edo, erraz ezin erabaki baledi, oraingoz biak har litezke; jakina, bestelako fenomeno fonetikorik ez dago zertan kontuan hartu, hala nola, bokal artean **-l- > -r-** bihurtzea, **-n-**ren ondoko kontsonante oklusiboa ozen egitea, eta abar, bide zahar eten gabekotik baletoz gertatuko litzatekeen erara.

Puntu honetarik abiatzen garela hona hemen sor daitezkeen problemetarik zenbait:

Latinez **circulus**, **-i**, forman ezagutzen zenez gero, orain **zirkulu** hobetsi beharko litzateke, bai izkribuz erabiltzeko eta bai ahoskatzeko, eta ez **\*kirкуру**, latinez **calculus**, **-i**, orain **kalkulu**, era horretara **artikulu**, (Ax.), **kapitulu**, (Ax.), **titulu** (P. Ab., 48), **mirakulu** (Leič., 209, Ax.: **mirakuillu**), eta abar, aspaldidanik euskaraz korritzen dutenak baitira, latinez **articulus**, **-i**, **capitulum**, **-i**, **titulus**, **-i**, **miraculum**, **-i**, izanik. Era berean **pendulu**, eta ez **\*benduru**, latinez **pendulus**, **-a**, **-um**.

Latinez **apparatus**, **-us**, orain **aparatu**, era berean **mandatu**, (Ax., P. Ab., 107, sustantiboa), egiten baita, latinez **mandatus**, **-us** izanik.

Latinez **decretum**, **-i** orain **dekretu**, era berean **sekretu**, (Leič., 310: **secretuac**, Ax.: **sekeretu**), baitugu, latinez **secretum**, **-i**.

Latinez **creditum**, **-i**, orain **kreditu**, era berean **infitum**, (Ax.), baitugu, latinez **infitum**, **-i**, eta **meritu**, (Ax., Leič., "Fedeco Articulvez", 19: **merituz**), latinez **meritum**, **-i**.

Latinez **institutum**, **-i**, orain **institutu**, latinez **statutum**, **-i**, orain **estatutu**.

Latinez **documentum**, **-i**, orain **dokumentu**, Iparraldeko zenbait mailegu zaharretan, Zuberoakoetan izan ezik, **-mendu** bukaeraz agertzen bada ere, gainera berrekailu moduan beste zenbait euskal hitz iturri zaharrekori itsatsirik, hala nola, **aitzinamendu**, (Ax.), **luzamendu** (Ax.), eta abar, **iuramendu**, (Ax., Leič., 210: **iuramenduz**), latinez **iuramentum**, **-i**, **tentamendu**, (Ax.), latinez **tentamentum**, **-i**. Badira akabuan **-ment** dutenak ere Iparraldean, azken bokalik gabe: **monument**, (Leič., “Testamentv berrico hitz eta minçatzeco manera difficil bakoitz batzu”), baina autore beraren tituluari ikusten denez **testamentu**, eta ez **testament**, hori ere ezaguna baita han, latinez **monumentum**, **-i**, eta **testamentum**, **-i**, eta abar.

Latinez **solidus**, **-a**, **-um**, eta **liquidus**, **-a**, **-um**, orain **solidu** eta **likidu**, edo **solido** eta **likido**, gogoan izanik **partidu** erabiltzen dela Hegoaldean, **-u** bukaerari analogiaz eutsi dion hitza hain zuzen ere, nahiz eta jatorri zuzenez latinetikoa ez den, gaztelaniazko **partido** partizipioarekin zer ikusia duena baizik, euskaraz **partitu**, ‘banatu’, ere badela. Iparraldean, ordea, **soldadu** hitzak badu aukeran **soldado** ere, gaztelaniaz **soldado**, partizipiotik datorrena hau ere, (Ax.: **soldadu** eta **gradu**, latinez **gradus**, **-us**), eta, beste alde batetik, **solido** eta **likido** erabiltzeak ere oinarriren bat baluke, eta izan ere berrikitan hala proposatu izan da, baina tradizioaren arauera sustrai sakonagokoa litzateke **-u** daramala amaitzen dena.

Latinez **planum**, **-i**, orain **plano**, latinez **meridianus**, **-a**, **-um**, orain **meridiano**, latinez **decanus**, **-i**, orain **dekano**, beranduko direnetan **-n** bokal artekoa galdu gabe, Iparraldean autore zaharrek erabili izan duten modura, baina zenbait lekutan korritzen duen **-anu** bukaera ere tradizio berriagoari loturik dago. Jakina, lehenengo aipatu den hitza euskaraz bide arruntetik **lau** bilakatu zen, **kristau** eta **garau** bezala, esan nahiaren aldetik beste bidetik letorkeena bereiz daitekeela.

Latinez **infusorium**, **-i**, orain **infusorio**, latinez **primarius**, **-a**, **-um**, orain **primario**, euskaraz normalki **-io** bilakatzen baita, beste alderdi batetik euskaraz **-ari** berrekailua ere badela, latinezko **-arius**, **-ii**, delakotik datorrena, eta, horrela, latinezko **bibliothecarius**, **-ii**, grekozko **bibliothékē** forman oinarriturikoa, orain **bibliotekari** litzateke, ohitura zaharrari eutsirik.

Latinez **integratio**, **-onis**, orain **integrazio**, mailegu arruntetan agertzen den bukaerako **-zio** berrekailua gorderik, **-zino**, **-zione**, eta abar, itxuraz ere ezagutzen dena, latinez **administratio**, **-onis**, orain **administrazio**, latinez **manifestatio**, **-onis**, orain **manifestazio**.

Latinez **datiuus**, **-i** kasuari dagokiona, orain **datibo**, (Leič., “Çvberoaco herrian vsançatan eztiraden hitz bakoitz batzu”, ey, er: **datiuo**), (J. d’Etcheb., 124: ..., **ceinec datiuo eta ablatiuo pluralecoan eguiten baitute abus**).

Latinez **modernus**, **-a**, **-um**, orain **moderno**, latinez **alternus**, **-a**, **-um**, orain **alterno**, zaharrak diren **gobernu**, (Ax., Leič., 378: **gubernua**), **ifernu** / **infernu**, latinez **infernus**, **-i**, izanik ere, **-ano** bukaeradunekin bat eginik (Ax.:

eterno): Aita eternoa. Hala ere badira **kuadernu gisara modernu** ere normalki egingo luketen eskualdeak.

Latinez **minimum**, **-i**, orain **minimo**, Axularren **lejítimo** formaren erara, latinez **legitimus**, **-a**, **-um**.

Latinez **universum**, **-i**, orain **uniber(t)so**, zaharrago den **ber(t)so** bezala, latinez **versus**, **-us**.

Latinez **neuter**, **-tra**, **-trum**, orain **neutro**, latinez **spectrum**, **-i**, orain **espektró**, arrunta den Bizkaiko **laratro** bezala (P.Ab., 152: **laatro**), aldaera modura **taratelu**, **taratilu**, **taratulo** ere badituela geografian zehar, latinez **taratrum**, **-i**, eta bada **ministro** ere, (P. Ab., 80: ... **ta justicijaco beste ministruen ibilli ta procesuac?**), baina hala ere Axularrek **zentru** darabil, ikus beherako grekozko **kéntron**.

Latinez **pluralis**, **-e**, akusatiboan **plurale(m)**, orain **plural**, lat. **neutralis**, **-e**, orain **neutral**, lat. **naturalis**, **-e**, orain **natural**, lat. **vocalis**, **-s**, orain **bokal**, eta berdin **horizontal**, oinarria **horizon**, **-ontis** latinekoan duela, grekozko **horizōn**, **-ontos** formatik hartua, eta **katedral(e)**, oinarria **cathedra** latinekoan duela, grekozko **kathédra** formatik hartua, lehenagoko zenbait mailegu arruntek azkenengo **-e** ta guzti korritu izan badu ere: **ospitale**, latinez **hospitalis**, **-e**, eta **materiale**, latinez **materialis**, **-e**, eta baita **katedrale** ere, gorago ikusi denez.

Latinez **sculptor**, **oris**, akusatiboan **sculptore(m)**, orain **eskultore**, azkenengo **-e** gorderik, forma arrunten arteko kasu bakanen batzuetan artikulua ipintzerakoan **motorra** bezalakoak erabiltzen badira ere, latinez **motor**, **-oris**.

Latinez **singularis**, **-e**, euskaraz **singulare** moduan erabili izan da (J. d'E-tcheb., 145: **singularean Iauna**), egungo egunean **singularrean** esateko joera zabaldu bada ere, **militarrean** bezala, latinez **militaris**, **-e**.

Latinez **universitas**, **-atis**, akusatiboan **universitate(m)**, orain **uniber(t)si-tate**, bukaerako **-tate** hobetsirik.

2. Euskaraz badira, alabaina, atzerriko hizkuntzen eraginez arrunt bilakatu direnak, hala nola, **mitín**, ingelesez **meeting**, **tenis**, ingelesez **tennis**, eta abar, lehenago **tabako** eta halako hitzekin gertatu zen erara.

3. Iturri zaharra grekoa denean, formaren aldetik latinean zutena oinarritzat hartzen bada ere, amaierako **-o** gorde daiteke, mailegua bide arruntetik ez datorrenean.

Hona hemen adibide batzu:

Grekoz **diálektos**, latinez **dialectos**, **-i**, kasu honetan grekoak bezala **-o** duela latinak, orain **dialekto**.

Grekoz **arkhitéktōn**, latinez **architectus**, **-i**, orain **arkitekto**.

Grekoz **ástron**, latinez **astrum**, **-i**, orain **astro**, bide arruntetik **asturu-gaitz**, 'zorte txarra', eta horrelakoak baditugu ere.

Grekoz **philólogos**, latinez **philologus**, -i, orain **filologo**.

Grekoz **philánthropos**, latinez **philantropos**, -i, grekoz bezala -ō duela latinak, orain **filantropo**.

Grekoz **antídotos**, latinez **antidotus**, -i, orain **antidoto**.

Grekoz **amphóteros**, orain **anfotero**.

Grekoz **pétalon**, latinez **petalum**, -i, orain **petalo**.

Grekoz **parállēlos**, latinez **parallelus**, -on, edo **parallelus**, -a, -um, orain **paralelo**.

Grekoz **typos**, latinez **typus**, -i, orain **tipo**.

Grekoz **kylindros**, latinez **cylindrus**, -i, orain **zilindro**.

Grekoz **khristianismós**, latinez **christianismus**, -i, orain **kristianismo**. Gainera **-ismo** berrekailua bestelako zenbait hitzi ere ezar dakioko, ikus Leič., 332: **iudaismoan**, latinez **iudaismus**, -i.

Grekoz **kéntron**, latinez **centrum**, -i, orain **zentro**, baina Axularrek **zentru** darabil bide arruntaren arauera, \***genduru** edo \***zenduru** egin gabe hala ere.

Hona hemen autore zaharretan agertzen diren zenbait:

Leič., 382: **guiçõ heretica**, latinez **haereticus**, -i, grekozko **hairetikós** hitzetik datorrena.

Ax.: **paralitiko**, latinez **paralyticus**, -i, grekozko **paralytikós** hitzetik.

Leič., 335: **pedagogoren azpian**, latinez **paedagogus**, -i, grekozko **paidagōgós** hitzetik.

Leič., "Testamentu berrico hitz eta mincatzeco manera difficil batzu": **proselytoa**, latinez **proselytus**, -i, grekozko **prosélytos** hitzetik.

Éta modu berean beste zenbait, hala nola, P. Ab., 53: **anatomico**, Leič., "ABC", 3: **diphtōgoa**, Ax.: **martirio**, P. Ab., 84: **microcosmo**, Leič., 355: **mysterioa**, P. Ab., 83: **pronostico**, Belap., 39: **simboloac**, Leič., 437: **thronoan iarria**, Ax.: **tirano**, eta abar.

Grekozko **ánalysis**, eōs, grekozko **katékhēsis**, -eōs, latinez **catechesis**, -is, neologismoa den **psykhsis**, grekozko **psychḗ**, -ēs, forman oinarritua, neologismoa den **neurosis**, grekozko **neuron**, ou, forman oinarritua, grekozko **metrópolis**, -eos, latinez **metropolis**, -is, nominatiboko azken -s gabe har daiteke: **analisi**, **katekesi**, **psikosi**, **neurosi**, **metropoli**. Baina hala ere -s gorderik **-itis** bukaera dutenak: **flebitis**, **otitis**, **meningitis**, edo silaba bat edo biko hitzak direnean, **iris**, grekoz **írís**, -idos, **atlas**, grekoz **átlas**, -antos, **kosmos**, grekoz **kósmos**, -ou, eta abar.

4. -a organikoaz. Mailegu berrien -a organikoari eustea gomendatzen du Euskaltzaindiak: **Biologia**, **filosofia**, **kultura**, **historia**, ... Honek, ordea, ez

du esan nahi hitz elkartu eta eratorriak sortzerakoan **-ia** bukaera duten hitzetan azken **-a** hori ezin kenduzkoa denik: **Biologi ikerlanak, Filosofi Fakultatea, ...**

Nolanahi dela, hitz elkartu eta eratorriei dagokienez maileguzko zein euskarazko hitz jatorren **-a** organikoa konposizioan nola erabil litekeen erakusteko arau zehatzagoak emango ditu bere egunean Euskaltzaindiak.

5. Beste alde batetik adierazten da, grekotikako hitzetan, latinean erabiltzen zen ortografiaren arauerako usarriotik, hau da, **ph, th, y**, eta abar, erabiltzetik saihestuarren ere, horrek ez duela esan nahi herri hartarik datorren erro zaharra kulturazko mundurako ezerezturik gelditzen denik, eta, hizkuntza klasiko horren ezagupidea, latinarena bezala, euskaldun ikasien arterako zabalik uztea eta bultzatzea beharrezko dela, Europako kulturaren iturburu denez gero.

### Laburpen gisa

Latinez <b>-ulus, -i</b>	bukaera, euskaraz	<b>u</b>
Latinez <b>-atus, -us</b>	”	<b>u</b>
Latinez <b>-cretum, -i</b>	”	<b>u</b>
Latinez <b>-itum, -i</b>	”	<b>u</b>
Latinez <b>-utum, -i</b>	”	<b>u</b>
Latinez <b>-entum, -i</b>	”	<b>u</b>
Latinez <b>-idus, -a, -um</b>	”	<b>u</b>
Latinez <b>-anum (-anus), -i</b>	”	<b>o</b>
Latinez <b>-arius, -a, -um</b>	”	<b>ari</b>
Latinez <b>-tio, -onis</b>	”	<b>zio</b>
Latinez <b>-ivus, -i</b>	”	<b>o</b>
Latinez <b>-ernus, -a, -um</b>	”	<b>o</b>
Latinez <b>-imum (-imus), -i</b>	”	<b>o</b>
Latinez <b>-versum, -i</b>	”	<b>o</b>
Latinez <b>-ter, -tra, -trum</b>	”	<b>o</b>
Latinez <b>-alis</b>	”	<b>al</b>
Latinez <b>-tor, -oris</b>	”	<b>ore</b>
Latinez <b>-aris, -e</b>	”	<b>ar</b>
Latinez <b>-itas, -atis</b>	”	<b>tate</b>

Grekoak ” **o**  
(S bukaera dutenek, letra hori galtzen dute, salbu **-itis** bukaeradunak eta silaba bat eta bikoak direnak)

A organikoa gorde, salbu hitz elkartu eta eratorrietan

(Bilbon, 1984eko Martxoaren 30ean onartua)



### III. G, J, I, Y

“Mailegu zaharretarako **j** eta baita ere **i** ukitu gabe, orain mailegatzen diren hitzetan **g** grafia hobetsiko da: **biologia** (biologo), **geografia** (geografo), **filologia** (filologo), **dramaturgia** (dramaturgo). Jakina da **g** grafema /g/ bezala irakurri ohi dela euskaraz edozein bokalen aurrean.

Bestaldetik, erdaretan **i/j/y** agertzen denean bide honi jarraituko zaio:

- 1) Bokal artean beti **i** idatziko da.
- 2) Gainerako kasuetan silaba hasieran baldin badago, beti **j**, **jaiegun** eta **jaia** hitzetan bezala”.

(1984.eko Maiatzaren 25ean hartutako erabakia)



#### IV. X

1. Hasieran eta bukaeran **x** duten maileguak puntu honi dagokionez aldatu gabe idatziko dira, hala nola **xenofobia** eta **fenix**.
2. Bokal artean **x** idatziko da **taxi**, **sexu**, **oxigeno**, eta abar.
3. Kontsonante aurrean ez da **x** idatziko, **s** baizik, honetan tradizioari (estrainio, esplikatu, testu, eskumiku, espresuki) jarraituz.

(1984.eko Uztailaren 27ean hartutako erabakia)